

BESTELAKO XEDAPENAK

ENPLEGU ETA GIZARTE GAJETAKO SAILA

1265

EBAZPENA, 2012ko martxoaren 15ekoa, Gizarte Zerbitzuetako zuzendariarena; honen bidez, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako Prestazio eta Zerbitzuen Karterako dekretu-proiektua jendaurrean jarriko da.

Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuaren 2012ko otsailaren 15eko Aginduaren bidez, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako Prestazio eta Zerbitzuen Karterako dekretu-proiektua lantzeko prozedurari hasiera ematea onartu zen.

Xedapen orokorrak egiteko prozedurari buruzko abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 8.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, herritarren eskubide eta interes legitimoak eraginpean hartzen dituzten xedapen orokorrei entzunaldiaren izapidea aplikatuko zaie. Halaber, eta xedapenen izaerak aholkatzen duenean, jendaurrean jarriko dira.

Ildo horretan, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako Prestazio eta Zerbitzuen Karterako dekretu-proiektua jendaurrean jarriko da, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera kontatzen hasita 2012ko apirilaren 30era arte.

Aurreko guztia dela-eta, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa– Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako Prestazio eta Zerbitzuen Karterako dekretu-proiektua jendaurrean jartzea, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera kontatzen hasita 2012ko apirilaren 30era arte.

Bigarren.– Aurreko paragrafoan xedatutakoaren ondorioetarako, eta alegazioak aurkezteko, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako Prestazio eta Zerbitzuen Karterako dekretu-proiektuaren edukia Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren Gizarte Zerbitzuetako Zuzendaritzan (helbidea: Donostia kalea, 1, Vitoria-Gasteiz), Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoan (www.euskadi.net), Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren atarian (www.gizartelan.ejgv.euskadi.net) eta Irekiaren atarian (www.irekia.euskadi.net) egongo da eskuragarri.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko martxoaren 15a.

Gizarte Zerbitzuen zuzendaria,
IÑAKI MIRENA MÚGICA FLORES.